


PLAN BEREZIA



BERMEOKO
ALDE ZAHARRA


**BERMEOKO ALDE ZAHARRAREN PLAN
BEREZIAREN ERAGIN LINGUISTIKOAREN
EBALUAZIORAKO (ELE) TXOSTENA**

2021eko maiatza

SARRERA.	4
PLAN BEREZI BERRIAREN ZERGATIA.	7
GIZARTE ETA DEMOGRAFIA.....	7
1.- Alde Zaharreko biztanleria.	7
2.- Etxebizitza.	8
3.- Ekoizpen jarduera eta egitura ekonomikoa.....	8
4.- Ekipamenduak eta elkarteak.	8
5.- Ondorio batzuk.	9
INDARREAN DAGOEN PLANGINTZA.	10
1.- Gaur egungo hiri-antolaketa eredu.	10
2.- Indarrean dagoen plangintza.	10
KULTURA ONDAREA.....	10
ONDARE HISTORIKO-ARKITEKTONIKOA 10	10
Euskal Herriko Autonomi Erkidegoak Monumentu/Monumentu Multzo bezala aitortutako ondasun higiezinak 10	10
ONDARE ARKEOLOGIKOA 11	11
Euskal Herriko Autonomi Erkidegoak aitortutako Gune Arkeologikoak..... 11	11
KATALOGATUTAKO ELEMENTUEN BABESA 11	11
AURRERAKINAREN PARTE-HARTZE ETA JENDAURREKO ERAKUSTALDIAREN EMAITZA.	11
PROPOSATUTAKO LURRALDE ETA HIRI EREDUA 11	11
1.- Deskribapen orokorra eta balizko hautabideak..... 11	11
1.1.- Sarrera..... 11	11
1.2.- Kontutan izan diren hautabideak..... 12	12
2.- Justifikazioa goi-mailako plangintzaren ikuspegitik..... 12	12
3.- Proposatutako bizitegi ereduaren justifikazioa:..... 13	13
3.1.- Hiri-lurzoru finkatua..... 13	13
3.2.- Finkatu gabeko hiri-lurzorua..... 13	13
4.- Proposatutako ekonomi-jarduera ereduaren justifikazioa:..... 13	13
5.- Proposatutako ekipamendu eta azpiegitura ereduaren justifikazioa: 13	13
5.1.- Sistema Orokorrak..... 13	13
5.2.- Tokiko Sistemak..... 13	13
LURZORU ETA JARDUEREN ZENBAKETA 14	14
GARATZEKO BEHAR DEN DENBORAREN GAINEKO AURREIKUSPENAK..... 15	15
HIZKUNTZA-INPAKTUAREN INTENTSITATEAREN KALKULUA 16	16
1.- Testuingurua. 16	16
1.1.- Ezagutza datuak, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza ezagutza. 16	16

1.2.- Euskararen inguruko egituraketa	17
2.- Ebaluazio prozesua. Metodologia	17
2.1.- Aztertuko den tokiaren testuingurua eta egitasmoa aztertu.	17
2.2.- Proiektuak hizkuntza txostena behar duen zehazteko galdetegi laburra erantzun.....	17
2.3.- Proiektuaren bilakaera indizea kalkulatu.....	17
2.4.- Eragin linguistikoaren galdetegi zehatza bete eta indizea kalkulatu.	17
2.5.- Funtsezko alderdiei buruzko galdetegia bete eta hobetzeko neurriak identifikatu.	18
2.6.- Neurri zuzentzaileak proposatu.....	18
3.- Aurrelanak	19
3.1.- Irismen dokumentua.	19
3.2.- Balorazio batzordea.....	21
ERAGIN LINGUISTIKOAREN INTENTSITATEAREN EBALUAZIOA.....	22
1.- Galdetegia.	22
2.- Eragin linguistikoaren intentsitate-puntuazioaren emaitza.	26
FUNTSEZKO ALDERDIEI BURUZKO AZTERKETA	27
1.. Izaerari, dimentsioari eta lekukotzeari lotutako alderdiak.	27
KONPENTSAZIO-NEURRIAK	41
NEURRI ZUZENTZAILEAK	42
1.- Etxebizitza, ekipamendu eta espazio publiko irekiei lotutako neurriak.	42
1.1.- Planifikazio garaian ezartzekoak.....	42
1.2.- Plana garatu aurretik eta egin bitartean.	42
1.3.- Biztanle berriak etortzen direnean.	43
2.- Jarduera sozioekonomikoari lotutako neurriak.	44
2.1.- Planifikazio garaian.....	44
2.2.- Enpresei lotutako bisitariak etorriko direnean.	44
2.3.- Zerbitzuei lotutako bisitariak etorriko direnean.....	44
3.- Jarduera soziokulturalari lotutako neurriak (kultura, turismoa).	45
3.1.- Planifikazio garaian.....	45
3.2.- Turismoari lotutako bisitariak etorriko direnean.....	45
4. Oro har kontutan izatekoak (politika orokor bezala).....	45

FASE HONEN KOKAPENA PLAN BEREZIAREN TRAMITAZIOAREN BARRUAN (KOLORE BERDEZ NABARMENDUA)



SARRERA.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, “Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez” deritzon 7. artikulua 7. atalean, honakoa ezartzen du:

“Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira.”

Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak honakoa ezartzen du:

50. artikulua.– Ebaluatu behar diren planak eta proiektuak.

1.– Udalek behean zerrendatzen diren plan eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko dute, bai eta horien funtsezko aldaketenak ere, baldin eta euskararen erabileran eragina izango badute:

a) Planak:

- Hiri-antolamenduko plan bereziak.*

– ...

2.– Aurreko zerrendan aipatutakoez gain, arnasmuneetako euskararen erabileran eragina izan dezaketen plan eta proiektu guztiak ebaluatu beharko dira.”

Arnasmuneen definizioa aipatutako dekretuaren 4. artikuluan zehazten da:

“4. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honen ondorioetarako, hona hemen zenbait terminoren esanahia:

– ...

- “Arnasmuneak»: eremu geografiko eta soziofuntzionalak zeinetan euskara dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorakoa baita, eta euskaraz aritzea ohikoa eta orokorra baita gizarte-harremanetan.”*

Bermeon, euskararen ezagutzari dagokionez, EUSTATen datuen arabera, 2016. urteko egoera (datuak ditugun azken urtea) hau zen:

Euskal AEko >=2 urteko biztanleria per lurralde eremua, euskara-maila eta aldia			
Bermeo		2016	%
	-Euskaldunak	11.972	73,34
	-Ia-euskaldunak	1.730	10,60
	-Erdaldunak	2.622	16,06
		16.324	100,00

Definizioak:

- Euskaldunak: euskara ondo ulertzen eta hitz egiten duten pertsonak.*
- Ia-euskaldunak: euskara ondo edo zailtasunekin ulertzen duten eta zailtasunez hitz egiten duten pertsonak.*
- Erdaldunak: euskara ulertzen eta hitz egiten ez duten pertsonak.*

Laburbilduz, Bermeo ea “arnasmune” bat da; izan ere, euskaraz dakiten pertsonen ehunekoa % 73,34 da, euskara gizarte-harremanetan erabilera normal eta orokorreko hizkuntza da jende askorentzat; horrez gain, udalaren euskara zerbitzuak egindako irismen dokumentutik, 179/2019 Dekretuan xedatutakoaren arabera, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin behar dela atera da.

2017 urtean Bermeoko Udalak Bermeoko alde zaharraren plan berezia berrikusteko prozesuari ekin zion, prozesu parte-hartzaile baten bitartez. Ordutik aurrera hauek izan dira emandako pausuak:

- 2017ko maiatza: lanak hasten dira.
- 2017ko ekaina: herritarren parte-hartze programa aurkezten da.
- 2017ko uztaila: lanaren aurkezpena egiten zaio Udalbatzari.
- 2018ko urtarrila: azterlan sozio-urbanistikoa hasten da.
- 2018ko otsaila: Aurrerakina onartzen da eta jendaurreko erakustaldia eta parte-hartzea hasten da.
- 2018ko abuztua: jendaurreko erakustaldia eta parte-hartzeari buruzko txostena aurkezten da.
- 2018ko urria: azterlan sozio-urbanistikoa aurkezten da.
- 2018ko urria: Ingurumen txosten estrategikoa jasotzen da.
- 2019ko apirila: Plan Bereziaren zirriborroa aurkezten da.
- 2019ko urria: Plan Bereziaren proposamenak berrikusten dira.
- 2020ko uztaila: hasierako onarpenerako bertsioa prestatzen da.
- 2020ko abuztua: genero ikuspegiari buruzko txostena egiten da.
- 2021eko urtarrila: hasierako onarpen aurreko txosten sektorialak jaso dira.

Plana beraz, hasierako onarpena jasotzeko prest dago. ELE egitearen beharra 2020ko maiatzean planteatu zen erredaktore-taldearen aldetik, eta irismen dokumentuaren lehen zirriborro bat egin zen. Euskara zerbitzuak bere aldetik ere lehen irismen dokumentu bat egin zuen.

Udalaren asmoa Plan Bereziari hasierako onarpena lehenbailehen ematea da, beraz ELE egiteko une ezin hobe da, bere azterlana jendaurrean jarri ahal izateko ere eta bere ondorioak Planaren hurrengo faseetan kontutan hartu ahal izateko.

Kontutan izanda Plan Bereziaren aurreikusitakoak herrian eta bertako errealitate linguistikoa izan dezakeen balizko eragina, Eragin Linguistikoa Ebaluazio (ELE) txosten hau idatzi da, eragin posible horiek identifikatzeko eta ebaluatzeko, eta eraginak kaltegarriak balira, hauek murrizteko neurri zuzentzaileak proposatzeko.

Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren Xedapen Gehigarriaren arabera:

“...

Bigarrena.– Beharrezkoa baldin bada 179/2019 Dekretuaren 54. artikuluan aurreikusitako «hizkuntza-inpaktuaren azterlana» egitea, planaren edo arau subsidiarioen hasierako onespeneren proiektuarekin batera prestatuko da, eta azterlanaren ondorioak proiektu horretan txertatuko dira; gainera, jendaurrean jartzeko eta kontsultak egiteko izapideak batera egingo zaizkio proiektuaren hasierako onespenerari eta azterlan horri.

...”

Era berean, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, honako hau ezartzen du:

“55. artikulua.– Informazioa jendaurrean jartzea, interesdunei kontsulta egitea eta entzunaldia.

1.– Plana edo proiektua onartzeko funtsezko prozedura jendaurrean jartzen denaldi berean, hizkuntza-inpaktuaren azterlana jendaurrean jartzeko izapidea ere egingo da.

Horregatik, Hasierako Onespenerarekin batera eta jendaurrean jarri aurretik, hizkuntzaren gaineko eraginaren azterlan hau idatzi da.”

Horretarako, UEMAk Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin batera garatutako metodologia eta tresna informatikoak erabili dira, 179/2019 Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera. Gainera, azterketa 179/2019 Dekretuaren 54. artikuluan ezarritakoaren arabera egituratzen da:

“54. artikulua.– Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea.

Udal-zerbitzu teknikoek egingo dute hizkuntza-inpaktuaren azterlana, zeinak alderdi hauek, gutxienez, aztertuko baititu:

a) Planaren edo proiektuaren azalpen orokorra eta garatzeko beharko den denboraren gaineko aurreikuspenak.

b) Hizkuntza-inpaktuaren intentsitatearen kalkulua. Inpaktuaren intentsitatea kalkulatzeko, aldagai hauek hartuko dira kontuan:

- Bizitza sozialaren eta kulturalaren gaineko inpaktua.*
- Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-gaitasuna.*
- Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-erabilera.*
- Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko komunikazioa.*
- Eraginpeko eremuko hizkuntza-paisaia.*
- Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko hizkuntza-eskaintza.*

c) Funtsezko alderdiei buruzko azterketa. Honako eremu hauek kontuan hartu behar dira:

- Plan edo proiektu motaren ezaugarriei buruzkoak.*
- Planaren edo proiektuaren denbora- eta espazio-dimentsioak.*
- Kokapenari buruzkoak.*
- Planteatu diren hizkuntza-erabilerari buruzko irizpideen gainekoak.*

d) Konpentsazio-neurriak.

e) Neurri zuzentzaileak.”

PLAN BEREZI BERRIAREN ZERGATIA.

Bermeoko Udalak indarrean dagoen alde zaharraren Plan Bereziaren berrikuspena hasi du. Bera idazteko agindua eman dio Hirigintza Teknikariak, S.L.P. – HIRITEK enpresari.

Indarrean dagoen Bermeoko alde zaharraren Plan Berezia 90. hamarkadako bukaerakoa da, eta 2001ean sartu zen indarrean, 2005ean aldaketa txiki bat izanik.

Urte guzti hauetan araudi aldaketak eta aldaketa teknikoak egon dira, baita ere egoera sozio-ekonomikoan. Hori dela eta, komenigarri da bere berrikuspena

Helburu nagusia kalifikatutako eta sailkatutako ondasun kulturalen babes-araubidea ezartzea da.

Bera idazterako orduan, arreta berezia jarri beharko zaio antolatze-eremuaren ezaugarri sozio-ekonomikoei, inguruko gainerako baldintzapenei eta Udalbatzak gaiari buruz adierazten dituen irizpideei.

Plan Berezi berriak balioko du izan diren berrikuntza guztiak hartzeko, bai hirigintza araudian, bai lurralde antolamendu eta arloko, ingurumen, irisgarritasun, eraikuntza, ondare-babes eta etxebizitzari buruzko araudian.

GIZARTE ETA DEMOGRAFIA.

1.- Alde Zaharreko biztanleria.

Alde Zaharreko gaur egungo biztanle kopurua 3.316 da. Bere azterketa xehatu bat egiten da gaur egungo Plan Bereziak banatzen dituen bost sektoreetan (hemen “analisi-unitateak” deituak).



1 Analisis-unitatea	547	16,49
2 Analisis-unitatea	808	24,37
3 Analisis-unitatea	706	21,29
4 Analisis-unitatea	579	17,46
5 Analisis-unitatea	676	20,39
GUZTIRA	3.316	100

2.- Etxebizitza.

2001 urtean, 2065 bizitzatik guztira 425 eraikinetan:

- Eraikinen %71 (etxebizitzen %79), mantentze egoera egokian.
- Eraikinen %17 (etxebizitzen %14), erdipurdiko mantentze egoeran.
- Eraikinen %2 (etxebizitzen %1), mantentze egoera txarrean.

Eraikinen adinari dagokionez:

- 1900 urte aurrekoak: 730 etxebizitza (%35) 198 eraikinetan (%47).
- 1900-tik 1940-ra: 535 etxebizitza (%26) 120 eraikinetan (%28).
- 1940-tik 1960-ra: 435 etxebizitza (%22) 57 eraikinetan (%13).
- 1960-tik 1990-ra: 347 etxebizitza (%17) 50 eraikinetan (%12).

Hau honela interpretatzen zen: nahiz eta eraikin asko egon jatorriz XIX. mendea baino aurrekoak zirenak, orokorrean, eremuaren behin betiko irudia XX. mendean finkatu zen eraberritze, altxatze eta horrelakoen bidez, eta sustapenak gaur egungo sasoirak hurbiltzen ziren neurrian, etxebizitza kopurua eraikineko handitu egiten zela.

Gaur egungo Plan Bereziaren indarraldian (eta baita ere 1992 urtean) birgaitze obra pribatuko bolumen handia izan da, gehien bat Berualak kudeatua, birgaitzerako laguntza edo inbertsioekin, eta horrek erabat hobetu du eraikuntzaren egoera, eta baita etxebizitzaren confort eta ekipamendu-maila. Hala ere, etxebizitza hutsen indizea altua izaten jarraitzen du. 2001 urtean %31koa zen, herriaren gainerakoan %20 zelarik ordea. Alde Zaharreko biztanleen kopurua 4.406-koa zen 2001 urtean (nahiz eta Plan Bereziak 3.400 auzokideko errolda aipatzen duen). Aurreko ataletan esan den bezala, kopuru hau dezente jaitsi da, gaur egungo 3.316 biztanlera arte heldu arte, agian, alde zaharreko jatorrizko biztanle asko hil egin direlako eta ez horrenbeste beste gune batzuetara joan direlako. Hala ere, uste da etxebizitza hutsen benetako indizea altua izaten jarraitzen duela.

3.- Ekoizpen jarduera eta egitura ekonomikoa.

2001 urtean, merkataritza txikia zen nagusi jarduera ezberdinen artean (establezimenduen %46,8), eta bere atzetik ostalaritza (%12,9), jarduera ekonomikoaren osagarri ziren establezimenduek (%9,8) eta industria-lantegiak (%6,2).

Establezimenduak, orokorrean, nahiko barriak ziren edo orduan zela gutxi berriztatutakoak ziren, negozio-bolumena nolabait egonkorra zen eta bertan kokatutako negozioen jabe gehienek konforme zeuden bere kokapenarekin alde zaharrean. Sortzen zuten enplegua establezimenduko 1,46 pertsonakoa zen, gehienak merkataritza txikian eta ostalaritzan (%51,7 eta %20,8, hurrenez hurren). Administrazioaren enplegua garrantzitsua zen ere (enpleguen ¼).

2017 urtean egoera aldatu egin da nolabait. Merkataritza txikia eta ostalaritza dira arlo nagusiak eta administrazio-jarduera alde zaharrean mantentzen da oraindik. Hala ere, lehen bien egoera eta ezaugarriak, bere garaian nolabait egonkor bezala ikusten zirenak, aldatu egin dira.

4.- Ekipamenduak eta elkarteak.

Eremu librean eta gune berdeen Sistema Orokorra:

Lamerako Parkea	12.110 m ²	Orokorra publikoa
Mikel Deunaren Enparantza	1.130 m ²	Orokorra publikoa
Prantzisko Deuna Atea	280 m ²	Orokorra publikoa

Eremu librean eta gune berdeen Tokiko Sistema:

Arana tar Sabin Enparantza	1.270 m ²	Tokiko publikoa
Gaztelu begiratokia (sarbide publikoa)	310 m ²	Tokiko publikoa
Bazterra Ibiltokia	490 m ²	Tokiko publikoa

Andra Mari Kaleko eremu librea	440 m2	Tokiko publikoa
San Juan arkuaren ondoko eremu librea	60 m2	Tokiko publikoa
Irakaskintza-Ongintza Kaleko eremu librea	120 m2	Tokiko publikoa
Josefindar mojetako eremu librea	420 m2	Tokiko publikoa
Intxausti Kaleko eremu librea	100 m2	Tokiko publikoa
Hurtado de Mendozako eremua		Tokiko publikoa
Kardenalaren Kaleko eremua	110 m2	Tokiko publikoa
Aurrekoetxea Kaleko eremu librea	160 m2	Tokiko publikoa
Aurrekoetxea Kaleko 18 eremu librea	130 m2	Tokiko publikoa
Aurrekoetxea Kaleko eremu librea	170 m2	Tokiko publikoa
Areilza Kaleko eremu librea	40 m2	Tokiko publikoa

Herri-ekipamenduko Sistema Orokorra:

Osasun eta Ongizate Patronatoa	Administrazio Zerbitzu Orokorrak	Orokorra
Monjas Josefindar mojetako Kulturgunea	Kultura	Orokorra
Nautika-eskola	Hezkuntza	Orokorra
J. A. Egia Udal Kontserbatorioa	Hezkuntza	Orokorra
Arrantzalearen Museoa	Kultura	Orokorra
Andra Mari eliza	Erlijiokoa	Orokorra
Eufemi Deunaren eliza	Erlijiokoa	Orokorra
Anbulategia	Osasuna	Orokorra
Udaletxea	Administrazio Zerbitzu Orokorrak	Orokorra
Sociedad Bermeana	Aisialdia	Orokorra
Ospitale Psikiatrikoa	Osasuna	Orokorra
Intxausti 2-ko udal bulegoak	Administrazio Zerbitzu Orokorrak	Orokorra
Andra Mari 22-ko eraikina (Beruala)	Administrazio Zerbitzu Orokorrak	Orokorra

Herri-ekipamenduko Tokiko Sistema:

Erremedio Kalea 5-eko biltegia	Administrazio Zerbitzu Orokorrak	Tokikoa
Udal Liburutegia	Kultura	Tokikoa
Pilotalekua	Kirola	Tokikoa
Arreta-Zerbitzuak "Kofradia"	Arreta-Zerbitzuak	Tokikoa
Jubilatuen elkarte (behe solairua soilik)	Arreta	Tokikoa

Elkarteak:

57 elkarte daude helbidea alde zaharrean dutenak: 2 kirolekoak, 23 kultural-gastronomikoak, 19 kulturalak, 3 sindikalak, 4 erligiokoak, 2 hirugarren adinekoak, 1 merkatariena, 1 arretakoa, 1 gizartekoa eta 1 kultura-kirolekoa.

5.- Ondorio batzuk.

Biztanleriaren azterketa batek erakusten digu ez dagoela aldaketa handirik sektoreen artean, eta ez dagoela biztanleri migratzailearen pisu larregirik, eta ez dagoela ere biztanleriaren zahartze nabarmen bat, alde aurretik pentsa zitekeen ez bezala. Baina ordea, bai dela nabarmena 2001 urtetik izandako biztanle kopuruaren beherakada (ea %25 bat). Etxebizitza, ekipamendu eta azpiegiturei dagokionez, erabat hobetu da bere egoera orokorrean 2001 urtetik. Jarduera ekonomikoari dagokionez, apurka-apurkako gainbehera bat antzematen da, batez ere merkataritza txikiarena, salbuespenak kenduta ere (portutik hurbileko ostalaritza establezimenduak).

Beraz, ikuspegi sozio-ekonomikoan, helburuak biztanleri kopurua mantendu edo hastea eta merkataritza txikia eta zerbitzu profesionaleri zuzendutako jarduera ekonomikoa suspertzea izango lirarteke.

INDARREAN DAGOEN PLANGINTZA.

1.- Gaur egungo hiri-antolaketa eredua.

Indarrean dagoen Plan Bereziaren memorian alde zaharraren hiri-bilakaeraren analisi bat egiten zen. Analisi honen azken ondorio bezala, 2001eko Plan Bereziaren ondokoak zuzentzea proposatzen zen:

- a) Barneko patio eta karkaben neurrigabeko erabilera.
- b) Arrotzak zaizkion eraikuntza motak ezartzea.
- c) Etxebizitza erabileraren ahalmenaren infraerabilera, eraikinen bertan behera uzteak areagotua (konpetibitate galeragatik).
- d) Berreskuratzea, ahal den neurrian, alde zaharraren irudia, larriki kaltetuta zegoena alde aurretik zeuden eraikinetan egindako eskuartze ez aproposez.

2001eko Plan Bereziaren aplikazioak ordenantza bat izan du emaitza bezala, eraikitako ondarearen berreskuratzea ahalbideratu duena. Bete dira ere bere aurreikuspenak ekipamendu zuzkidurari dagokionez, gauzatuak batez ere Josefendarrena izandako eremuan. Etxebizitza dagokionez, eraberritze eta birgaitze ekintza ugari izan dira. Hauetan zeresan handia izan du Beruala birgaitze sozietate publikoaren kudeatzeko ahalmenak. Azpiegitura sarea ere osatu egin da berrurbanizatzeko zenbait ekintzaren egikaritzaren bitartez.

Horrek finkapen maila altua duen hiri-eredu bat eratu du, trinkoa eta dentsitate altukoa, alde zaharretan den bezala. Hori dela eta, planteatzen diren ekintza berriak nahitaez doitu beharko dira eskala eta bideragarritasun ekonomikoko printzipioetara.

2.- Indarrean dagoen plangintza.

Gaur egungo Plan Berezia. Aurreko puntuetan esan den bezala, martxoaren 26ko 233/2001 Hirigintza Saileko Foru Aginduaren bidez onartu zen behin betiko. Bere araudia Bere araudia 2001eko irailaren 27ko 186. zk. BAOean argitaratu zen, era horretan indarrean sartuz. Plan Berezi honek ea hamarkada bateko indarraldia izan zuen uztailaren 10eko 1331/1991 Foru Agindu bidez onartutako beste bat ordezkatzeko zuten.

Bere ostean Bermeoko Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren onartu zen (2012ko irailaren 20ko osoko bilkura), non mugaketa Monumentu Multzoaren mugaketaren ezberdina da. Bere 6.2.1. A.O. (Zero area) Lurralde Arearako Xedapenak artikuluan islatzen da. Hala ere, HAPOeko hirigintzako araudiak xedapen ugari jasotzen ditu alde zaharretan direnak aplikagarri. Horrela, adibidez, 2. Kapituluko 3. SEKZIOA (E-1 ALDE ZAHARREKO EGOITZA ERABILERA DUTEN ZONEN ERABILERA ERREGIMENA), 3.2.13 eta hurrengoko artikuluek, zenbait eraikuntza eta erabilera parametro xehatu jasotzen dituzte. Honek eragiten dio, neurri batean, gaur egungo Plan Bereziaren ordenantza dokumentuari.

KULTURA ONDAREA.

Gaur egungo Plan Bereziak era xehatuan dakar bere garaian Alde Zaharretan zeuden ondasun katalogatu eta inbentariatu zerranda.

Bestalde, arloan eskumena duten organoetatik jasotako txostenen arabera, ondoko elementuak adierazten dira.

ONDARE HISTORIKO-ARKITEKTONIKOA

Euskal Herriko Autonomi Erkidegoak Monumentu/Monumentu Multzo bezala aitortutako ondasun higiezinak

Honek dira:

- *Alde Zaharra. EHAA 1996/06/18.*
- *Udaletxea. EHAA 1995/12/31.*
- *Ertzilla Dorretxea. EHAA 1984/08/04.*

- *Eufemi Deuna eliza. EHAA 1995/12/27.*
- *Andra Mari Deuna eliza. EHAA 1984/08/04.*
- *San Juango atea. EHAA 1995/12/14.*

ONDARE ARKEOLOGIKOA

Euskal Herriko Autonomi Erkidegoak aitortutako Gune Arkeologikoak

- *Bermeoko Alde Zaharreko arkeologia gunea. EHAA 1994/10/11.*

KATALOGATUTAKO ELEMENTUEN BABESA

Indarrean dagoen Plan Bereziak katalogatutako elementuen katalogo zabal bat jasotzen du. Bere araudiak Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legean ezarritako esparru arautzailea hartzen du erreferentzi gisa beraiek arautzeko.

Elementu hauek Eusko Jaurlaritzaren inbentarioan adierazitakoekin bat datoz eta alde zaharrean kokatzen diren balioko elementu guztiek hartzen dituzte. Hala ere, gomendatzen da gaur egungo ondare-inbentarioaren berrikuspena, dauden ondarearen beste elementu batzuk kontutan hartuz ere, hau da, ondare etnografiko industrial, naturala, gune libreak, ingeniartzakoa, etab.

AURRERAKINAREN PARTE-HARTZE ETA JENDAURREKO ERAKUSTALDIAREN EMAITZA.

Aurrerakina 2018ko otsailaren 6an aurkeztu zen komunikabideen aurrean, eta 2018ko otsailaren 8ko 28 zk. BAOean argitaratutako iragarki bidez jarri zen jendaurrean bi hilabetez pertsona interesatuek aztertu ahal izateko eta komenigarritzat jotzen zituzten iradokizun edo proposamenak egiteko. Otsailaren 15ean Aurrerakinaren aurkezpen publiko bat egin zen, Kultura Etxean egindako saio ireki baten.

Aurrerakina, bere laburpen exekutiboa eta idazketa prozeduran eratutako dokumentazio osagarriarekin batera, jendearentzat eskuragarri jarri zen udal webgunean (http://www.bermeo.eus/plan_berezia.html), hasierako orrialdean zegoen banner baten bidez sartuz.

Jendaurreko erakustaldia ukitutako administrazioei eta beste interesatu batzuei jakinarazi zen. Partikularren 9 iradokizun jaso ziren eta erakunde eta administrazioen 7 iradokizun eta txosten.

Beraien edukiak izaera ezberdinekoak ziren. Bazeuden eredu orokorrari (ekonomi-jarduerak, etxebizitza, ekipamendu, azpiegitura eta komunikazio sistema, etabar) egindakoak eta baita norbanako interesak (erabilera aldaketak, etabar) aipatzen zituztenak.

Erredaktore-taldeak txosten bat egin zuen banakako erantzuna emanez. Erantzun hauek bere egileei jakinarazi zitzaizkien.

PROPOSATUTAKO LURRALDE ETA HIRI EREDUA

1.- Deskribapen orokorra eta balizko hautabideak.

1.1.- Sarrera.

2001eko Plan Bereziak balio izan zuen alde zaharraren eta bere elementuen morfologia kontrolatzeko, era xehatuan jasoz fitxen bitartez eraikin baten egoera, berari zegokion babespen mailarekin (eta, hala balitz, bere diskordantziekin ere) batera. Hiri-bilbeak finkatu dira eta hiri ehunen zati handi bat birgaitu egin da (ekipamendu publikoak). Hala ere, eraikin gabeko kopuru nabarmen bat egon badago. Alde zaharra, beraz, eraldatze prozedura mantso baten barruan dago, arautua jada, zenbait ikuspegitan.

Dokumentu honen xedea lan horrekin jarraitzea da, aurreko Planean ezarritakoa aztertuz eta egokituz, baina beste pausu bat emanez alde zaharraren funtzionamendu egokian eragin ezkorra izan dezaketean zeharkako

gaiei dagokionez. Zeharkako gai horiek dira, beste batzuen artean, irisgarritasuna, genero ikuspegia, mugikortasuna, osasuna eta araudiaren malgutzea.

Gaur egungo Plan Bereziaren berrikuspena aukera ezin hobea da ere existitzen den ehuna birgaitzeko eta, denbora eta diruaren ikuspegitik, alde zaharra birgaitu eta suspertzeko helburu eta estrategia bideragarriak asmatzeko. Birgaitzea bultzatu jasotako datuen oinarritutako neurriekin (hauek digitalizatuz, era horretan kudeaketa erabat errazteko). Horretarako, helburu nagusi izango dira:

- Egiturako, eraikitze eta segurtasun baldintzen egokitzapena.
- Bizigarritasun baldintzen hobekuntza.
- Irisgarritasunerako baldintza egokiak lortzea.
- Programa edo banaketa dela eta etxebizitzaren mugaketa funtzionalak gainditzea.

Planaren helburu berri hauek eraikinen barruan islatu behar dira (bai etxebizitzetan, bai lokaletan), eta baita kale eta esparru publikoen dinamikan, alde zaharraren bizitasuna hobetzeko baliatuz.

Azken honi dagokionez, kezkatzekoa da merkataritza jarduera eta etxeen okupazio maila alde zaharrean. Ikuspegi hauek landu egin beharko lirateke, alde zaharraren ahalmen turistikoarekin eta garraio publikoarekin herri arteko bere lotura onari lotuz.

1.2.- Kontutan izan diren hautabideak.

Planteatzen diren proposamenen artean, bi bereziki planteatzen dira alde zaharraren osaketa eta funtzionamendu egokira bideratuak.

- Etxeberria tar Kresentzia Kalea eta Eskinarruaga Kalea oinezkoentzat bihurtzea, zoladura altxatuz dauden espaloien maila hartu arte, era horretan elkarbizitza esparruak eratzeke eta intuitiboki bideratzeko oinezkoen zirkulazio fluxua Lamera parkerantz, azken hau baita bizitza gehien daukan esparrua (eeta alderantziz, goranzko norabidean, Lamera Arana Goiri tar Sabin enparantzarekin eta Arresi Kaleko harresien ate zaharrarekin lotuz).
- Bilbearen ekialdeko muturrean, batez ere bere azken tartean, Bastarre Kalea eta Landatxuko Eskailerak Kalerantz, Bermeoko Portuko Plan Bereziaren aurreikusitakoa neurri batean jarraituz, erakarpen polo bat eratzea: sarrera bikoitzeko eta estalki erabilgarriko eraikin bat, alde batetik irisgarritasun irizpideekin gunee bat eta bestearen arteko kota diferentzia gainditzeko eta, bestetik, guneari erakargarritasuna emateko.

Baita ere, Tala inguruan, dauden ekipamenduetatik hurbil (anbulategia, psikiatrikoa, kontserbategia, Kultur Etxea, Fontan Lobe Bizealdirantza BHI) gunee bat garbitzea proposatzen da, psikiatrikoaren itxiera-horma kenduz ambulategiko hormarekin lotzen duen gunee arte (Arresi Kaleko bihurtzean), eta Ongintza Kalea eta Arresi Kalea oinezko bihurtuz Tonpoi Kaleko bidegurutzetik. Era honetan, gaur egun inguruan daudenak baino azalera lauagoko egoteko esparru bat lortuko litzateke, egunero gunera doazen erabiltzaile ugariarentzat zerbitzua emateko.

Gainera, lotura transbertsala hobetzeko proposatutakoaren ildora, proposatzen da ere, lehen bezala oinezko bihurtzea Intxausti kalea eta Nardiz Tar Jon Kalea, zoladura altxatuz dauden espaloien maila hartu arte, era horretan elkarbizitza esparruak eratzeke eta kale bi hauen oinezkoen zirkulazio fluxua hobetzeko, komertzialenak baitira, Arana Goiri Tar Sabiñen enparantza eta alde zaharraren ekialderantz.

2.- Justifikazioa goi-mailako plangintzaren ikuspegitik.

Proposatutako hautabideak LZP eta LAPen zehaztapenetara lotzen dira, hiri-lurzoru finkatuen antolaketa zehatuko tokiko jarduketetara lotzen baitira. Bateragarri dira ere Bermeoko HAPOK jasotako esparru arautzailearekin. Portuarekin lotzeko proposamena bere Plan Bereziaren islatu beharko da.

3.- Proposatutako bizitegi ereduaren justifikazioa:

3.1.- Hiri-lurzoru finkatua.

Proposatutako ekintzak finkatutako ehuna hobetzeko asmoa dute, ordenantzak gaur egungo araudi eta egoerara egokituz.

3.2.- Finkatu gabeko hiri-lurzorua.

Proposatutako ereduak ahalbideratzen du eraiki gabeko orubeetan edo antolaketa osagarria behar duten guneean kultura ondarearen mantentze eta esparru publiko eta pribatuen hobetze helburuei jarraipena eman ahal izatea.

4.- Proposatutako ekonomi-jarduera ereduaren justifikazioa:

Aurrerakin honetan jasotako proposamenetatik irteten den jarduera ekonomikoen eredu jarraitzailea da, zerbitzu sektorean oinarritutako eredu bat ahalbideratuz eta, batez ere, merkataritza txikia eta ostalaritzan, bere aberastasuna gordetzeko. Hau bultzatzeko, alde zaharra erakargarri bilakatzeko eta bere biztanleen eta alboko guneen bizitza hobetzeko jarduketak planteatzen dira, era horretan bere protagonismoa indartuz herriko gizarte-bizitzan. Horretarako, bai Plan Bereziaren antolaketa xehatuak, bai bere ordenantzek, eskaintzaren oreka ahalbideratuko dute eta baita kokatzeko erraztasuna, beti ere, bere biztanleen ongizatea babestuz.

5.- Proposatutako ekipamendu eta azpiegitura ereduaren justifikazioa:

5.1.- Sistema Orokorrak.

Alde zaharra, hasiera batean, hornituta dago ekipamenduen eta azpiegituren ikuspegitik. Hala ere, beraien hobekuntza proposatzen da, bai kokapenari, bai tamainari dagokionez. Eredu orokor mailan, ekintza berri hauek proposatzen dira:

Ekipamenduak.

Erabilera anitzeko sarrera bikoitzeko eta estalki erabilgarriko eraikin bat egitea, alde batetik irisgarritasun irizpideekin portu zaharreko eta Bastarre kalearen arteko kota diferentzia gainditzeko eta, bestetik, guneari erakargarritasuna emateko olatu-hormaren alderantz zabaltasun bat emanez.

Azpiegiturak.

Oinezko bihurtu eta zoladura berria eman komunikazio ardatz nagusiei, esateko, Etxeberria tar Kresentzia Kalea eta Eskinarruaga Kalea Lamerarantz, etab.

Tala inguruan, dauden ekipamenduetatik hurbil (anbulategia, psikiatrikoa, kontserbategia, Kultur Etxea, Fontan Lobe Bizealmirantea BHI) gunee leun eta libre bat lortzea, psikiatrikoaren itxiera-horma kenduz ambulategiko hormarekin lotzen duen gunee arte (Arresi Kaleko bihurgunean), eta Ongintza Kalea eta Arresi Kalea oinezko bihurtuz Tonpoi Kaleko bidegurutzetik.

Energia elektriko eta telefono sarearen aireko lineak lurperatu.

Saneamendu sare orokorra hobetu eta sistema banakatuez ordezkatu.

Sare optikoko telekomunikazio sarea alde zahar osora zabaldu.

Herri-argiteri sistema ez eraginkorrek apurka-apurka ordezkatu.

Hiri-hondakin solidoen bilketa sarea hobetu, ahal den neurrian eraginkortasuna eta funtzionaltasuna galdu gabe, hiriaren irudia hobetu eta hesiak saihesteko.

5.2.- Tokiko Sistemak.

“O.4_KALIFIKAZIO XEHATUA” planoan islatzen dira grafikoki. Batez ere gunee libreak dira eta administrazio eraikinen bat.

LURZORU ETA JARDUEREN ZENBAKETA

EREMUAREN AZALERA OSOA	138.119 m ²
ETXEEK HARTUTAKOA	53.632 m ²
GUNE LIBREAK	13.234 m ²
EKIPAMENDUAK	11.259 m ²
PORTUKO SOeko ERAIKINAK	2.585 m ²
BIDEAK eta PORTUA	57.409 m ²

GARATZEKO BEHAR DEN DENBORAREN GAINEKO AURREIKUSPENAK

Ondoren jasotzen da proiektatutako jarduketaren laburpena, Planak beraiantzat egikaritzapen epe bat jarriz. Planaren antolaketa xehatua aurreikusitako jarduketekin bat datoz. Bere justifikazio-memorian deskribatzen dira.

Zentzu honetan, ez dira sartzen bere eskala mugatua dela eta, Plan Bereziaren arauketa esparru barruan dauden sustapen pribatuaren ondorio diren birgaitze eta eraikuntza berriko jarduketa isolatuak orokorrean. Bakarrik egiturazko mailan nabarmenak direnak.

Nola bere araudian Plan Bereziaren indarraldi etengabea ezartzen den, jarduketak garapen-lehentasunen arabera antolatzen dira beraien egikaritzarako epeak jarriz eta beraiak denboran sekuentziatuz ondoko irizpideak jarraituz:

- Jarduketaren lehentasun maila ezartzeko, nagusi da zenbait eremu garatzeko beharra eta egokitasuna, beraiak eraberritu edo birgaitzeko dagoen hirigintzako interesa dela eta.
- Jarduketa bat hasita, bere programazio maila alde izandakoa izanda ere, Plan Bereziak interes maximoa dauka bera arrazoizko epe baten barruan garatzeko eta atzerapenik ez egoteko.

Eraikuntzaren, eta kasuan kasu urbanizazioaren, egikaritzapen faseentzat aurreikusitako datak Plan Berezia 2021 urtean indarrean sartuko dela kontutan hartuta jo dira. Indarrean sartze urtea ez bada hori, aurreikusitako datak egokitu beharko dira esandako denbora irizpidearen arabera.

Ondorengo koadroak jarduketaren eta beraien denbora-programazioaren xehetasuna dakar ondoko parametroak jarraituz:

Lehentasuna: Bi lehentasun maila ezartzen dira:

- Lehentasun maila 1. Plan Bereziak egikaritzarako interesa eta lehentasuna ematen dizkien jarduketak. Jarduketa hauek Plan Bereziaren garapenaren lehen laurtekoan sartzen dira.
- Lehentasun maila 2. Epe zehatzik ez duten jarduketak, Plan Bereziaren indarraldian zehar egin daitezkeenak.

AURREIKUSITAKO JARDUKETA	LEHENTASUNA	EPEAK
Elkarbizitza gunea gaitu (Intxausti, Nardiz tar Jon, Eskinarruaga-Etxebarria tar Kresentzi kaleak)	1	Planaren indarraldiaren lehen laurtekoa.
Arresi-Ongintza berrurbanizatzea	2	Planaren indarraldian zehar.
Portua-alde zaharraren ekialdea lotura	1	Planaren indarraldiaren lehen laurtekoa.

Jarduketaren mugaketa O.8_PROPOSAMENAK planoan ikus daiteke.

HIZKUNTZA-INPAKTUAREN INTENTSITATEAREN KALKULUA

Hizkuntza-inpaktuaren intentsitatea Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak garatutako aplikatiboaren ELE Galdetegiaren bidez kalkulatu da. Galdetegi horrek eragin linguistikoa identifikatzeko eta ebaluatzeko balio du, modu zehatzago batean, eta hizkuntzaren ikuspegitik proiektuak edo jarduerak izan ditzakeen gabeziak aurreikusten lagunduko du.

Hizkuntzari estu lotutako sei aldagaien inguruan galdetzen da horretarako prestatuta dagoen aplikazioan:

- *Bizitza sozialaren eta kulturalaren gaineko inpaktua.*
- *Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-gaitasuna.*
- *Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-erabilera.*
- *Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko komunikazioa.*
- *Eraginpeko eremuko hizkuntza-paisaia.*
- *Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko hizkuntza-eskaintza.*

1.- Testuingurua.

1.1.- Ezagutza datuak, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza ezagutza.

Ezagutza:

	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Bermeo								
Guztira	17.799	17.945	17.641	16.907	16.508	16.375	16.542	16.324
-Euskaldunak	12.943	13.321	13.556	13.113	12.503	12.040	12.025	11.972
-Ia-euskaldunak	2.056	1.930	2.090	2.050	2.564	2.764	2.481	1.730
-Erdaldunak	2.800	2.694	1.995	1.744	1.441	1.571	2.036	2.622

Lehen hizkuntza:

		Lehen hizkuntza			
	Guztira	Euskera	Gaztelania	Biak	Beste bat
Bermeo	16.776	9.439	5.233	1.450	654

Etxeko hizkuntza:

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Bermeo						
Euskara						
Guztira	9.991	9.601	9.072	8.267	7.479	6.946
Gaztelania						
Guztira	4.691	4.391	4.694	5.395	6.443	6.296
Biak						
Guztira	3.204	3.157	3.130	2.984	2.688	3.027
Beste bat						
Guztira	37	27	42	143	376	507

1.2.- Euskararen inguruko egituraketa.

Bermeoko Udalak zenbait plan eta Euskara Sail bat dauka, zinegotzi delegatuz, euskara teknikari, itzultzaile, trebatzaile eta administrari laguntzaile batez osatua, hizkuntzaren normalizazioarekin zerikusia duten gaiak koordinatzen dituena. Hau da onartutako dokumentuen zerrenda:

Udalerraren Euskara Plana

- Bermeoko euskararen plan estrategikoa (2018-2022)
- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2018
- Bermeoko euskararen egoeraren diagnostikoa
- Geurien be bai - urteko plana - 2017

Udalaren Euskara Plana

- Bermeoko Udaleko euskara plana. 2018-2022 plangintzaldia
- 2017ko Kudeaketa Plana

Ordenantzak eta Araudiak

- Euskararen Normalizaziorako Udala Ordenantza
- Euskara Aholku Batzordearen araudia

Gotzon Garitaonaindia Euskaltegia dauka, euskararen etengabeko irakaskuntzara dedikatua.

Hezkuntzari dagokionez, D eredia da nagusi herriko eskoletan, publiko zein pribatu.

2.- Ebaluazio prozesua. Metodologia.

UEMAk Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailarekin batera garatutako ELE tresna da ebaluazio hau egiteko jarraitu eta erabili den metodologia.

2.1.- Aztertuko den tokiaren testuingurua eta egitasmoa aztertu.

Eragin linguistikoaren ebaluazioarekin hasi aurretik, Bermeo herriaren eta, banakatutako datuak zeuden neurrian, alde zaharraren testuingurua aztertu da, beronen datu demografiko, soziolinguistiko eta sozioekonomikoak aztertuz. Ondoren, Plan Bereziaren alderdi garrantzitsuenak ere aztertu dira.

2.2.- Proiektuak hizkuntza txostena behar duen zehazteko galdetegi laburra erantzun.

Edozein egitasmo edo proiektu udalerrri bateko egoera soziolinguistikoan eragingo duen edo ez ondorioztatzeko balio duen galdetegia da. Galdetegia sinplea da, galderei BAI edo EZ erantzuna eskatzen duena.

Aldaketa lau faktore nagusik eragingo dute: biztanle kopurua ugaritzeak edo bisitari/erabiltzaile/langile kopurua ugaritzeak, hizkuntza politika aldatzeak edota tokiko harreman sareak aldatzeak.

2.3.- Proiektuaren bilakaera indizea kalkulatu.

Biztanleria eta bisitarien kopurua aldatutako duelako bete da urrats hau. Horretarako Biztanleriaren Proiektzio Indizea, Euskararen Proiektzio Indizea eta tokiaren Hauskortasun Indizea kalkulatu dira.

2.4.- Eragin linguistikoaren galdetegi zehatza bete eta indizea kalkulatu.

Galdetegi honek eragin linguistikoa identifikatzeko eta ebaluatzeko balio du, modu zehatzago batean, eta hizkuntzaren ikuspegitik proiektuak edo jarduerak izan ditzakeen gabeziak aurreikusten laguntzen du.

Galdetegi honen helburua eragin linguistikoaren nolakotasuna aztertzea eta eragina jasan dezaketen alderdiak identifikatzea da.

Hizkuntzari estu lotutako aldagaien inguruan galdetu da:

- Komunitatearen kultur eta gizarte bizitzan
- Biztanleriaren/bisitarien euskararen ezagutzan
- Biztanleen/bisitarien euskararen erabileran
- Jardueren/zerbitzuen komunikazioan
- Eragin eremuaren hizkuntza-paisaian
- Jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintzan – erabileran

2.5.- Funtsezko alderdiei buruzko galdetegi bete eta hobetzeko neurriak identifikatu.

Edozein proiektu edota jarduerak jaso beharreko funtsezko alderdiak biltzen dituen galdetegi da.

Galdetegiaren bidez, ekimenean zein praktika barne hartu ez diren identifikatu da. Horri esker, neurrien zerrenda bat egin da, txostenean kontuan hartu dena.

Funtsezko alderdiak bost ataletan banatuta daude:

- Proiektuaren/jardueraren izaerari lotutakoak: etxebizitzaren tipologia, espazio publikoen funtzio eta erabilera mota, ekipamenduen kudeaketa eredua eta gararen sozioekonomiko zein soziokulturalaren eredua euskararen garapen positiborako egokiak al diren aztertzen du funtsezko alderdi honek.
- Proiektuaren/jardueraren dimentsioari (espazioan eta denboran) lotutakoak: proiektuak ekarriko duen hazkundera, berau garatzeko beharko den denbora eta okupatuko duen espazioa hizkuntzaren garapen positiborako egokiak al diren jasotzen du.
- Proiektuaren/jardueraren lekukotzeari lotutakoak: proiektua edo jarduera garatuko den lekua euskararen garapen positiborako egokia al den aztertzen da alderdi honetan.
- Proiektua/jarduera garatzeko ezarritako hizkuntza-irizpideei lotutakoak: proiektuari/jarduerari mota desberdinetako (ahozkoa, idatzizkoak, kontrataziotarako...) hizkuntza irizpideak ezarri al diren jasotzen da.
- Proiektuaren/jardueraren kaltea konpentsatzeko proiektu/jarduera osagarriak (neurri aringarriak): garatuko den proiektuaz gain, horrek sortuko duen kaltea murrizteko bere baitan bestelako jarduerak edo proiektu osagarriak aurreikusitakoak al diren aztertzen da.

Izaera, dimentsioa eta lekukotzeari lotutako alderdiak bost jarduerak nagusitan banatuta daude:

1. Etxebizitza
2. Jarduera ekonomikoa, enplegua
3. Ekipamenduak
4. Espazio libreak
5. Jarduera soziokulturala.

Hizkuntza irizpideei eta jarduerak osagarri/aringarriei lotutako alderdiak orokorrean galdetu dira, jarduerak edozein dela ere.

2.6.- Neurri zuzentzaileak proposatu.

Behin diagnostikoa eta aurreikuspena eginda, zein funtsezko alderdiei buruzko azterketa eginda, azaldu diren eragin posibleei zein neurri zuzentzaile proposatzen zaien azaltzeko puntua da.

Ebaluazio prozesuak hiru fase izan ditu:

- 1- Aurrelanak
- 2- Ebaluazioa
- 3- Neurrien proposamena

3.- Aurrelanak

Lehenengo fasean honakoak izan dira zereginak: proiektuaren inguruko eta Bermeo eta alde zaharreko informazioa eskuratzea. Oinarrizko datu bilketa, zeharkako iturrietatik datu bilketa, dokumentuak, estatistikak.

Iturri hauek erabili dira: Eustat, UEMA (Azterketa Sozioekonomikoa eta Soziolinguistikoa) eta Plan Berezirako erabilitako datuak, batez ere, azterlan sozio-urbanistikoa.

Datu horietatik erazutakoekin osatu da Hauskortasun indizea, Euskararen Proiekzio indizea eta Eragin Linguistikokoaren indizea.

Aldez aurretik aipatutako indizeen emaitzak eta datuak kontuan hartuta, Balorazio Batzordea arduratu da Eragin Linguistikokoaren Ebaluazio galdetegiak bete eta puntuazioa ezartzeaz.

3.1.- Irismen dokumentua.

Alde zaharraren Plan Bereziaren kasuan, ez zen aurreikusten etxebizitza berririk, baina bere zeharkako proposamenen artean merkataritza eta turismoa berpiztea daude. Era horretan, nahiz eta biztanleriaren hazkunderik ez den planteatzen, bisitarien kopuruaren handitzea ekarriko luke eta, beraz, eragina izango luke tokiko biztanleriaren kopuruan. Ondorioz, arrazoizkoa iruditu da prebentzio ikuspegitik izan dezakeen eragina neurtzea. Horretarako, euskara zerbitzuak irismen dokumentua egin du xls aplikatiboan oinarrituz (OHARRA: herri osoko datuak hartu dira; ez dira banakatu alde zaharreko datuak).

GALDETEGI LABURRA

GALDERA	BAI/EZ	AZALPENA
1. Planak/egitasmoak izango du eraginik tokiko biztanleria kopuruan? (etxebizitzak eraikiko direlako, lanpostuak sortuko delako...)	EZ	
2. Planak/egitasmoak izango al du eragin nabarmenik tokiko bisitari kopuruan? (aisialdi guneak eraikiko delako, zerbitzuak sortuko direlako, lanpostuak ugarituko direlako...)	BAI	
3. Planak/egitasmoak egoera soziolinguistikoa beste era batera eragin nabarmenik izango du?	EZ	

1. BILAKAERA INDIZEA (BI)

Euskararen ezagutzaren bilakaera eta hauskortasun indizearen arteko uztartekatik sortzen da indize hau. Herri batek zenbat eta hauskortasun indize altuagoa izan, esan nahi du orduan eta gaitasun gutxiago izango duela euskararen ezagutzan izango den inpaktuari aurre egiteko. Bi indezeren batuketaren emaitza da: Hauskortasun Indizea eta Euskararen Proiekzio Indizea.

2. HAUSKORTASUN INDIZEA (HI)

Euskararen ezagutzaren bilakaera eta hauskortasun indizearen arteko uztartekatik sortzen da indize hau. Herri batek zenbat eta hauskortasun indize altuagoa izan, esan nahi du orduan eta gaitasun gutxiago izango duela euskararen ezagutzaren inpaktuari aurre egiteko; horregatik, euskararen ezagutzaren proiektzioaren indizeari ez zaio punturik gehituko. Aitzitik, hauskortasun indizea txikia denean, inpaktuari aurre egiteko gaitasun handiagoa izango du (euskararen inguruko egitura baduelako, herri handi samarra delako, euskaldunen kopurua ez delako horren altua..).

Bermeori dagozkion datuen arabera, Hauskortasun indizea **HI = 5,3** da, hau da, hauskortasun txikiko gunea da.

3. EUSKARAREN PROIEKZIO INDIZEA

Bermeoko alde zaharrean datozen urteetan ez da etxebizitza berririk egitea aurreikusten, eraikin berrietan behintzat. Baina turismoko ikuspegia kontutan hartuta, irismen dokumentuan 851 bisitari berri etortzea aurreikusten da. 2019ko Turismo Bulegoko datuak erabili dira, 2020ko datuak COVIDaren eraginez oso bestelakoak zirelako, eta ez zetozen beste urte batzuetako datuekin bat. Irismen

dokumentuan, hizkuntzaren ikuspegitik egoerarik txarrean jarri behar dela uste zuenez euskara zerbitzuak, Bermeora bisitari gehien etortzen diren hileak hartu ziren kontuan (uztaila eta abuztua), eta formula hau aplikatu zen:

$$9.815 \text{ uztailako bisitari} + 15.292 \text{ abuztuko bisitari} = 25.107 \text{ bisitari} : 62 \text{ egun} = 404,95 \text{ bisitari eguneko} \times 2,1 = 850$$

Gero, euren jatorria ikusteko, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa, Estatu... datuen tauletara jo zen eta uztailako eta abuztuko datuen gehiketa egin, eta batuz beste uztailan eta abuztuan leku horretatik etortzen den bisitari kopuruaren ehunekoa atera zen (esate baterako, Bizkaiko bisitariak uztailan %6,46 + abuztuan %4,78 = %5,62 guztira Bizkaiko bisitariak).

Euskararen Proiektzio Indizea						
Biztanleen kopurua gaur egun	16.776					
Euskaldunak gaur egun kopurutan	12.414					
Euskaldunak gaur egun %	74,00 %					
Biztanle/bisitari berrien kopurua	851					
BIZTANLE/BISITARI BERRIEN JATORRIA PORTZENTAJETAN						
				KOPURUTAN		
Bizkaia	5,62 %					48
Araba	1,40 %					12
Gipuzkoa	2,42 %					21
Estatua	74,87 %					637
Atzerria	15,22 %					130
DENETARA	100 %					
EUSKARAREN EZAGUTZA JATORRIAREN ARABERA						
	Bizkaia	Araba	Gipuzkoa	Estatua	Atzerria	
Euskaldunak %	36,62 %	28,54 %	57,37 %	2,00 %	0,00 %	
Besteak %	63,38 %	71,46 %	42,63 %	98,00 %	100,00 %	
Euskaldunak	18	3	12	13	-	
Besteak	30	9	9	624	130	
BIZTANLE/BISITARI BERRIEN KOPURUA EZAGUTZAREN ARABERA						
Biztanle/Bisitari berrien kopurua	Etorriko diren erdaldunak	Etorriko diren euskaldunak				
851	802	45				
EUSKARA EZAGUTZA TASAK (ORAINGOAK ETA GEROKOAK) ETA KONPARAKETA						
Biztanle/bisitari berriak + ohikoak	Biztanle/bisitari euskaldun ohikoak + berriak	Biztanle/bisitari euskaldun ohikoak + berriak %	Euskaldunen % gaur egun	EPI%	EPI	
17.627	12.460	70,69 %	74,00 %	-3,31 %	-3,31	

Datu hauek guztiak aintzat hartuta:

		Oharrak
Guztira	16.776	
Euskaldunak - Guztira%	74,00	
Ama-hizkuntza euskara - Guztira%	56,26	
Etxean erabiltzen den hizkuntza - Guztira%	42,55	
Euskara Zerbitzua	BAI	
ESEP	BAI	
Faktorea biztanle kopurua	2,00	
Faktorea Euskaldunak	4,00	
Faktorea Lehen hizkuntza	2,00	
Faktorea Etxeko hizkuntza	2,00	
Faktorea Euskararen inguruko egituraketa	0,00	
Hauskortasun indizea	5,33	
Hiren eraginaren balioa	2,00	
Euskararen proiektzio indizea	-3,31	
Bilakaera indizea	-1,31	
TXOSTENA EGIN BEHARRA - IZAERA	HIZKUNTZA INPAKTUKO AZTERLANA BAI	

Beraz, Bilakaera Indizearen arabera (BI = -1,31), eta Bermeoko izaera soziolinguistikoari erreparatuta, bisitari hauen eragina moderatua izango litzateke euskararentzat.

IZAERA	ERAGINA	BALIOA GUZTIRA
Onuragarriak	Erabat positiboa	10<
	Positiboa	3<x<9
	Nahiko positiboa	0<x<2
Neutroa	Ez du eraginik	0
Kaltegarriak	Garrantzia gutxikoa	0<x<-1
	Moderatua	-2<x<-6
	Larria	-7<x<-9
	Oso larria	-10<

3.2.- Balorazio batzordea.

Aldez aurretik aipatutako indizeen emaitzak eta datuak kontuan hartuta, Balorazio Batzordea arduratu da Eragin Linguistikoaren Ebaluazio galdetegiak bete eta puntuazioa ezartzeaz.

Balorazio Batzordea honako pertsonen osatu dute:

- Santi Murua Etxebarria, Beruala, tokiko birgaitze sozietate publikoko zuzendaria.
- Karmele Muñoa Arrigain, Idazkaritzako AOT.
- Nere Mintegi Elorriaga, Behargintzako zuzendaria.
- Bego Gangoiti Canga, Turismo arduraduna.
- Goio Allika Anduiza, Udal Arkitektoa.
- Markel Bollar Arrate, abokatu hirigilea.
- Aitziber Gabikaetxebarria Goikoetxea, euskara teknikari-trebatzailea.

UEMAko laguntza teknikoa ere izan da.

Batzordearen lan-saioak era honetan antolatu dira:

1. bilera	
Parte-hartzaileak	Balorazio Batzordea
Egitekoak	Galdetegia betetzen hasi
	Prozedura zehaztu
2. bilera	
Parte-hartzaileak	Balorazio Batzordea
Egitekoak	Datuak aztertu
	Diagnostikoa osatu
3. bilera	
Parte-hartzaileak	Balorazio Batzordea
Egitekoak	Eragina aztertu
	Neurri zuzentzaileak proposatu

Azterlanaren erredakzioa HIRITEK arkitektura eta hirigintza estudioko talde teknikoak egin du eta Balorazio Batzordearekin partekatu da.

ERAGIN LINGUISTIKOAREN INTENTSITATEAREN EBALUAZIOA

1.- Galdetegia.

Eragin Linguistikoaren ebaluazioa egiteko etxebizitza planari dagokion galdetegia bete da. Emandako erantzunak ondoren agertzen diren tauletan daude jasota.

	BAI/EZ	+ -	INTENTSITATEA	BALIOA	AZALPENA
1. Komunitatearen kultur eta gizarte bizitzan (harreman sareak aldatzea, harreman ohiturak aldatzea, kultur espresioak aldatzea, elkargune berriak sortzea, kultur agenda aldatzea)					
1.1 Eragina proiektua egiten ari den artean					
1.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
	BAI	-	BAXUA	1	Alde Zaharra udalerriko gune garrantzitsua da, baina ez da espero bere zehaztapenen egikaritzak horren beste eragin izatea
1.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
1.2. Eragina proiektua egin eta gero.					
1.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
	BAI	+	ERTAINA	-6	Esparru publikoak eta eraikin publikoak egiten direnean ekintza publikoak ezartzeko aukera hobea dago.
1.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.					
1.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.	EZ			0	
	BAI	+	ERTAINA	-4	Ez dira aldi baterako jarduketak.
1.4. Eragina etengabekoa izango da.					
				-9	ERAGIN POSITIBOA
2. Tokiko euskararen ezagutzan					
2.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
2.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
2.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	EZ			0	
2.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
2.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
	BAI	-	BAXUA	3	Bisitariak direla eta batez ere.
2.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.					
2.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.				0	
2.4. Eragina etengabekoa izango da.	BAI	-	BAXUA	2	Ez dira aldi baterako jarduketak.
				10	BAXUA

3. Tokiko euskararen erabileran					
3.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
3.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
3.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	BAI	-	FRTAINA	2	Bisitariak direla eta batez ere.
3.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
3.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
3.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	BAI	-	FRTAINA	6	Bisitariak direla eta batez ere eta baita portuko ekipamenduan sortuko diren ekintzen eraginez.
3.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.	EZ			0	
3.4. Eragina etengabekoa izango da.	BAI	-	FRTAINA	4	Ez dira aldi baterako jarduketak.
				36	ERTAINA
4. Hizkuntza paisaian					
4.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
4.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
4.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	BAI	-	BAXUIA	1	Alde Zaharra udalerriko gune garrantzitsua da, baina ez da espero bere zehaztapenen egikaritzak horren beste eragin izatea
4.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
4.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	BAI	-	BAXUA	2	Jarduketak gauzatzen direnean, bi toki zehaztetan izango da eragina.
4.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	EZ			0	
4.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.	EZ			0	
4.4. Eragina etengabekoa izango da.	BAI	-	BAXUIA	2	Ez dira aldi baterako jarduketak.
				5	BAXUA

5. Zerbitzuen/ jardueren/ egitasmoen komunikazioetan					
5.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
5.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
5.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	BAI	+	BAXUA	-1	Komunikazioak udalerrri osora zabaltzen dira
5.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
5.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
5.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	BAI	-	FRTAINA	6	Komunikazioak udalerrri osora zabaltzen dira
5.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.					
	EZ			0	
5.4. Eragina etengabekoa izango da.					
	BAI	-	BAXUA	2	Ez dira aldi baterako jarduketak.
				7	ERTAINA
6. Euskarazko zerbitzuen eskaintzan					
6.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?					
6.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
6.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	EZ			0	
6.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?					
6.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektua garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
6.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	BAI	-	BAXUA	3	Ekipamendu asko daude alde zaharrear, gehienak publikoak. Portuko etorkizuneko ekipamendua barne.
6.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.					
	EZ			0	
6.4. Eragina etengabekoa izango da.					
	BAI	-	BAXUA	2	Ez dira aldi baterako jarduketak.
				5	BAXUA
Eragin Linguistikoaren Intentsitate Puntuazioa				54	GARRANTZI GUTXIKOA

2.- Eragin linguistikoaren intentsitate-puntuazioaren emaitza.

54 GARRANTZI GUTXIKOA.

FUNTSEZKO ALDERDIEI BURUZKO AZTERKETA

179/2019 Dekretuaren arabera, funtsezko alderdiei buruzko azterketa egiterakoan honakoak kontuan hartu behar dira:

- *Plan edo proiektu motaren ezaugarriei buruzkoak.*
- *Planaren edo proiektuaren denbora- eta espazio-dimentsioak.*
- *Kokapenari buruzkoak.*
- *Planteatu diren hizkuntza-erabilerari buruzko irizpideen gainekoak.*

1.. Izaerari, dimentsioari eta lekukotzeari lotutako alderdiak.

Erabili den Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren aplikatiboan, izaerari, dimentsioari eta lekukotzeari lotutako alderdiak bost jarduera nagusitan banatuta daude: etxebizitza, espazio publiko irekiak, oinarritzko ekipamenduak, jarduera ekonomikoa eta jarduera soziokulturala.

Ondoren aplikatiboaren galdetegien erantzunak jaso dira. Lehengo tauletan izaerarekin, dimentsioarekin eta lekukotzearekin zerikusia dutenak. Eta, ondoren, Hizkuntza-irizpideei eta neurri osagarriei/aringarriei lotutakoak.

ETXEBIZITZA

IZAERA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
1	Etxebizitzaren batez besteko kostua herritarren beharretara egokitutakoak al dira?	X			Egitekotan eraikinen batzuk birgaituko dira. Prezioa beti egokitzen da maila ekonomiko ertaineko bizilagunetara.	Euskararen ezagutzatasa horrenbeste ez jaitea lortzen da, herrikoak bertan geratzeko aukera sustatuta, hazkuntza txikiagoa izango litzatekeelako.
2	Etxebizitzetatik oinarrizko zerbitzu eta ekipamenduak aise iristeko moduan egotea sustatzen al du?	X			Peatonalizazioak, gunen libre handiagoak... proposatzen ditu	Komunitatearen gizarte bizitza aberasten du eta, ondorioz, erabilera areagotzen du
3	Elkarbizitzarako espazio irekiak aurreikusten al dira etxebizitzetatik gertu?	X				
4	Etxebizitza-eraikin berrietan, bizilagunek elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremanetan jartzeko, atari bakoitzeko bizilagun-kopurua zaintzea edo mugatzea aurreikusi al da?			X	Zehaztuta dago beste plan batzuetan	

DIMENTSIOA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
5	Herriaren hazkuntza jasangarria izatea jasotzen al da helburuen artean?	X			Hirigintza iraunkor eta jasangarriaren printzipioak jarraitu dira bera idazterakoan.	Euskararen ezagutzatasa horrenbeste ez jaitea lortzen da, herrikoak bertan geratzeko aukera sustatuta, hazkuntza txikiagoa izango litzatekeelako.
6	Etxebizitzak eskuratzeko lehentasuna herritarrek izateko neurriak hartzea proposatzen al da?			X	Plan Bereziak ez dauka non gauzatu babestutako etxebizitzarik, ez da bere izaera eta helburua ere.	
7	Etxebizitzen eraikuntza denboran luzatzeko neurriak jasotzen al dira?			X	Ez da eraikiko ezer berririk. Daudenen bat eraberritu eta ekintza horretan zaila da epe lotesleak jartzea.	
						Jende etorrera asimilatzeke aukera lortzen da

LEKUKOTZEA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
8	Etxebizitzak herriko eremu ezberdinetan egitea aurreikusten al da?			X	Alde Zaharra bakarrik arautu dezake Plan Bereziak, eta orube apur batzuk, erabat aldez aurretik mugatuta daudenak.	Eraginaren intentsitatea baxuagoa izatea lortzen da

ESPazio PUBLIKO IREKIAK

IZAERA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
9	Espazio publiko irekiak erakargarriak, aise iristeko modukoak eta erabiltzeko modukoak bultzatzen al dira?	X			Proposatzen diren espazio publiko berriak ondo daude txertatuta hiri-bilbean.	Gizarte kohesioa eta kultur bizitza areagotzen du eta ondorioz, erabilera areagotzen du
10	Oinezko sareak aurreikusi al dira?	X			Alde Zaharrak jada badauka peatonalizazio maila altua eta ardatz nagusietan aurreikusten diren ekintzetan are gehiago.	
11	Espazio publikoen arteko harremana egotea kontuan hartu al da?	X			Existitzen da jada aldez aurretik, eta portuko ekipamenduak eta ipar eremuko sarrerak ildo horretan doaz.	
12	Espazio publiko irekiei askotariko erabilera ematea aurreikusten al da?			X	Planak ez du deskribatzen. Hasiera batean ez da bere egitekoa	Ezaugarri ezberdinetako pertsonak elkarrekin egotea sustatzen du eta gizarte kohesioa eta elkarbizitza hobetzen du, erabilera areagotuz
13	Espazio publikoetan adin nahasketa ematea aurreikusten al da? Haur zein helduek erabili ahal izateko guneak egotea?			X	Planak ez du deskribatzen. Hasiera batean ez da bere egitekoa	Gizarte kohesioa sustatzeaz gain, hizkuntzaren zein kulturaren transmisioa ematea sustatzen du

DIMENTSIOA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
14	Tokiko beharretara neurriratutako espazio publikoak aurreikusi al dira	X			Hala egitea izan da asmoa eta alde zaharrak oso eskala egokia dauka gizakiarentzat.	Erabiltzaileen hazkuntza jasangarria izaten laguntzen du eta, ondorioz, erabilerari modu xumeagoan eragiten dio

LEKUKOTZEA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
15	Ekimenak garrantzi naturala, historikoa edota kulturala duten lekuak babesten edo hobetzen al ditu?	X			Bere xede nagusia hori da bere legezko izaeragatik.	Bertako ondarea zaintzen du, bertako kultura, hizkuntza, natura, historia aintzat hartuta
16	Espazio publiko irekiak beste instalazio batzuk ditu inguruan, adibidez, dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta gizarte kohesioa sustatzeko komunitate-zentroak?	X			Aldez aurretik jada herriko ekipamendu gune nagusia da.	Gizarte kohesioa eta kultur bizitza areagotzen du eta, ondorioz, erabilera areagotzen du
17	Espazio publiko irekiak eremu askotan dispertsatzea aurreikusten al da?	X			Zenbait kaleren peatonalizazioa eta Sanjuanportale ondoko gune librea.	

ONARRIZKO EKIPAMENDUAK

IZAERA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
18	Ekimenak hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutako oinarritzko ekipamenduen erabilera sustatzen al du?			X	Legez ez da bere xedea.	Gizarte bizi eta kultur bizi sustatzen du. Herritarren integrazioa ahalbidetzen dute.
19	Kultura, kirola, hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen eraikinen kudeaketa publikoa izango al da?	X			Azken finean herri-ekipamenduak dira.	Udalaren hizkuntza irizpideak ezartzen dira
20	Pribatua izanez gero udalarekin hitzarmenak egitea aurreikusten al da?			X	Legez ez da bere xedea.	Udalarekin hizkuntza irizpideak adosten dira

DIMENTSIOA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
21	Tokiko beharretara neurriratutako ekipamenduak aurreikusi al dira?	X			Batez ere irisgarritasunaren beharra eta portu ingurua eta Alde Zaharra lotzea ahalbidetzen dituen ekipamendua egitea planteatzen da	Erabiltzaileen hazkuntza jasangarria izaten laguntzen du eta, ondorioz, erabilera zein ezagutza tasari modu xumeagoa eragiten dio

LEKUKOTZEA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
22	Ekipamenduak beste ekipamendu osagarri batzuetatik gertu daude eta denen koordinazioa, eraginkortasuna eta gizarte-kohesioa ahalbidetzen duen sarea osatzen dute?	X			Halan da, izatez alde zaharraren hiri-bilbea halakoa delako.	Ekipamenduen erabilera sustatzen du eta, ondorioz, gizarte integrazioa eta erabilera areagotzen du

JARDUERA EKONOMIKOA

IZAERA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
23	Ekimenak tokiko lan-aukerak sustatzen al ditu?			X	Legez ez da bere xedea.	Bertakoei lanean geratzeko aukera eskaintzen die, eta, ondorioz, langileen euskararen ezagutza eta erabilerari modu xumeagoan eragiten dio
24	Sortuko diren lanpostuak bertakoek betetzeko neurriak ezartzen al ditu helburuen artean?			X	Legez ez da bere xedea.	
25	Helburuen artean askotariko enpleguak lortzeko aukerak sustatzea al dago?			X	Legez ez da bere xedea.	
26	Herritar-talde guztientzako lan aukerak bultzatzen al ditu?			X	Legez ez da bere xedea.	
27	Helburuen artean, tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza sustatzea jasotzen al du?			X	Legez ez da bere xedea.	
28	Ekonomia aniztasun handiagoa egotea bultzatzen al du?	X			Hirigintza aldetik erabilera anitzak egotea ahalbideratzen da, eta portuko eraikina zerbitzu erabilera izatea proposatzen da.	

DIMENTSIOA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
29	Tokiko beharretara neurriratutako lanpostuak sustatuko al dira?			X	Legez ez da bere xedea.	Tokiko lan beharrei erantzuten die eta aldi berean kanpoko langile kopurua neurriratzeak ezagutza tasari positiboki eragiten dio

LEKUKOTZEA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
30	Enpresa berriak eraikiko badira euskararen hauskortasun txikiko gunean izatea aurreikusi al da?			X	Alde Zaharrean hauskortasun maila berdina da orokorrean.	Eraginaren intentsitatea txikitzen du

JARDUERA SOZIOKULTURALA

IZAERA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
31	Bertako kultura, hizkuntza, ohiturak sustatzea jasoko al du helburuen artean?			X	Legez ez da bere xedea.	Bertako kultura, hizkuntza eta ohiturak sustatzen ditu eta prestigiatzen ditu
32	Erabiliko diren irudi leloak bertako ezaugarriei lotutakoak izatea sustatuko al du?			X	Legez ez da bere xedea.	Bertako izaera indartzen, prestigiatzen du
33	Ekimenak bertako kultur sorkuntza sustatzea izango al du helburuen artean?			X	Legez ez da bere xedea.	Bertako kultur erreferenteak indartzen ditu

DIMENTSIOA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
34	Bisitari kopuru jasangarria jasotzea sustatuko al du?			X	Legez ez da bere xedea.	Erabilera eta ezagutza tasari modu xumeagoan eragiten dio

LEKUKOTZEA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
35	Jarduerak bisitariak hauskortasun txikiko gunean jasotzea aurreikusten al du?			X	Legez ez da bere xedea.	Intentsitate maila baxuagotzen laguntzen du

HIZKUNTZARI LOTUTAKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
36	Jardueraren/proiektuaren exekuzio faserako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, langileen euskara ezagutzari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilerari lotutakoak...		X		Planaren garapeneko proiektuetan gauzatu beharko dira neurriak	Egoera soziolinguistikoari kalterik egingo ez diola bermatzen da
37	Jardueraren/proiektua garatu eta gero inguru berri horretarako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, toponimiari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilera eta ezagutzari lotutakoak...		X		Planaren garapeneko proiektuetan gauzatu beharko dira neurriak	

NEURRI OSAGARRIAK/ARINGARRIAK

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
38	Kaltea murrizteko neurri osagarri edo aringarriak aurreikusi al dira? Etorri berriak euskalduntzeari begirakoak, etorri berrien integraziori begirakoak, euskara planak garatzeari begirakoak, ziurtagiriak eskaintzea, itzulpen zerbitzuak, irizpideak betetzen ez direnerako isunak...		X		Planaren garapeneko proiektuetan gauzatu beharko dira neurriak	Proiektuaren/jardueraren eraginez sortutako kaltea murrizten da

KONPENTSAZIO-NEURRIAK

Kontuan izanik Plan Berezia plangintza-tresna bat dela, horren helburua erabilerak antolatu eta beren gauzatze formala arautzea dela, eta ez duela eskumenik hizkuntzaren arloan, ezar daitezkeen neurri konpentsatzaileak hauek dira:

- *Adin guztietako jendearentzako espazioak sortzea (adinekoak eta haurrak leku berean egoteko aukera). Adin desberdinetako haurrentzako jolastokiak ezartzea. Hori guztia hirigintza inklusiboko irizpideak dituzten ordenantzen bidez arautu daiteke.*
- *Obra proiektuak egiten direnean, gazteentzako egokiak diren espazioak edota hiri-inguruneak diseinatzea, haiek bermatuko baitute euskararen erabilera.*
- *Espazio publikoetz gain, zuzkiduren erabilera-aniztasuna sustatzea, adin desberdinetako pertsonak erabili ditzaten. Hala, belaunaldien artean erabilera eta ezagutza hobetzen baita. Horretarako funtsezkoa da erabilerak egoki arautzea.*
- *Alde zaharreko gunen desberdinen arteko lotura hobetu eta lehenestea, eta, ondorioz, bertako harremanak edota kohesioa. Besteak beste, ordezkoko mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetuz, etab.*

Ordea, hizkuntzari dagokionez, bere izaera eta xedeagatik Plan Bereziak hainbat neurri eta irizpide jaso ezin dituen arren, hauek guztiak jasota eta araututa daude Bermeoko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean. Irizpide hauek Udalaren hizkuntza politika zuzentzen duten heinean, ezinbestean bete beharrekoak dira.

NEURRI ZUZENTZAILEAK

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren aplikatiboan neurri zuzentzaileen karta-eredu bat dago eskuragarri.

Bertan proposatzen diren neurriak positiboak eta sustapenera bideratutakoak dira. Hots, neurri baztergarriak baino, berdintasun eta proportzionaltasun printzipioetan oinarritutako neurriak lantzen egin behar da ahalegina.

Nolanahi ere, neurri zuzentzaileen karta hori eredu bat da, eta tokian tokiko errealitateari erantzun doitu emateko bertako errealitateara egokitu behar da, baita ebaluatzen den planera ere.

Hala, kartan jasotako neurri zuzentzaile batzuk, interesgarriak izan arren, EZIN DIRA PLAN BEREZITIK EZARRI, PLAN HONEN ESKUMENEKOAK EZ DIREN GAIK DIRELAKO. Hala eta guztiz ere, komenigarria izan daiteke beste tresna edo ekimenen bidez horiek ezartzea. Beraz, gomendatzen da ondoko neurriak Plan Berezia antolatutako eremuan GIDALERRO EDO IRIZPIDE bezala erabiltzea etorkizunean bertan garatzen diren proiektu eta jarduketak gauzatzeko orduan.

1.- Etxebizitza, ekipamendu eta espazio publiko irekiei lotutako neurriak.

1.1.- Planifikazio garaian ezartzekoak.

Izaerari lotutakoak

- Bizilagunen arteko harremana erraztuko duten etxebizitza motak, irisgarriak eta bizigarriak arau teknikoez haratago, bultzatzea sustapen publikoetan edo laguntza publikoa izan dezaketen sustapenetan (kontutan hartzeko udalaren etxebizitza politiketan).
- Biztanle berrien integratzeko egiturazko irizpideak ezartzea esparru publiko berriak diseinatzerakoan edo eraberritzaerakoan (kontutan hartzeko udalaren obra publiko politiketan).
- Etxeen behealdean lokalen eskaintza bat bermatzea oro har, eta hain zuen, merkataritzarako ardatz nagusietan.
- Hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutako oinarritzako ekipamenduen parametroak zaintzea.
- Zerbitzuaren kudeaketa pribatua izanez gero udalarekin hitzarmenak egitea etorkizunean irizpide moduan kontutan izatea (kontutan hartzeko udalaren obra etorkizuneko politiketan).
- Ekipamenduen arteko koordinazioa, eraginkortasuna eta gizarte-kohesioa ahalbidetzen duen sarea zaintzea eta bultzatzea.
- Bertakoei etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematea legez ahal den neurrian. Etxebizitza eraikitzaileak herriko kooperatibak izatea sustatzea politika publiko gisa.
- Etxebizitzak herrikoentzako eskuragarri izan daitezten neurriak hartzea sustapen publikoetan: beharrak neurtu, eskaerak jaso...

Dimentsioari lotutakoak

- Tokiko beharretara neurriraturako espazio publikoak eta ekipamenduak aurreikustea.

1.2.- Plana garatu aurretik eta egin bitartean.

Hizkuntza irizpideei lotutakoak

- Planaren iragarkiak tokiko eta euskarazko hedabideetan egitea lehenestea.
- Plangintzaren ondorio diren obra lizentzia ematerakoan hizkuntza irizpideak txertatzea legez ahal den neurrian, hizkuntza paisaia euskaraz izan dadin.

- Euskara-planak edo ziurtagiria duten hornitzaileak lehenestea Planaren egikaritzarekin zerikusia duen edozein lizitaziotan.
- Herriko eta tokiko eragileei hizkuntza irizpideen berri ematea. Parte hartzerakoan, lehen hitza euskaraz egiten jarrai dezaten animatzea.
- Pasaia linguistikorako irizpideak garatu etorkizunean, euskarari lehentasuna emanez eta erdarak beharrezkoa den kasuetan soilik erabiliz.
- Komunikazio irizpideak finkatu, euskarari lehentasuna emanez.
- Euskarazko eskaintza edo eskaintza elebiduna bermatzea.
- Etxebizitza edo jarduera ekonomikoetako sustapen pribatuetan, laguntzak edo erraztasunak eman iragarkiak tokiko eta euskarazko hedabideetan egiteko eta dokumentazioa (proiektuak, eskriturak eta erregistroko izapideak, etab.) euskaraz egiteko.
- Esparru publiko edo plangintza eremu bati izen berriren bat jarri behar izatekotan, bertako toponimia erabili.
- Portuko erabilera anitzeko etorkizuneko eraikinean hitzarmenik sinatzen bada Eusko Jaurlaritzarekin, ahal den neurrian hizbaketetan hauek jaso:
 - Kudeaketa publikoa edo emakida izan behar badu, hizkuntza irizpideak jarraitzea.
 - Tokiko beharretara egokitutako ekipamendua izatea eta tokiko kultura eta identitatea sustatzea.
 - Ekimenak, besteak beste, bertako kultur sorkuntza sustatzea.
 - Hizkuntza erabilerarako irizpideak finkatzea, euskarari lehentasuna emanez.
 - Euskara-planak edo ziurtagiria duten hornitzaileak lehenetsi, legez ahal den neurrian.
 - Obrak egiten ari diren bitartean: paisaia linguistikorako irizpideak finkatu, euskarari lehentasuna emanez eta erdarak beharrezkoa den kasuetan soilik erabiliz; karteleria, seinaletika...) gutxienez euskaraz jartzeko hizkuntza irizpideak ezarri.
 - Obrak egin eta gero: obrak egiteko lizitazioan eta kontratuan hizkuntza irizpideak ezarri hizkuntza paisaia euskaraz izateko (karteleria, igogailua...); segurtasun sistemak (alarmak, su-itzalgailuak...) elebietan jarriz gero, euskarari lehentasuna eman; langile elebidunak kontratatu; lehenengo hitza beti euskaraz; euskara sustatzeko ekintzak bideratu; euskal kultura eta identitatea sustatzeko ekintzak bultzatu; euskaraz egingo diren ekimenenak gutxienez ekimenen %70 izateko irizpideak finkatu.
 - Ekipamenduren izena euskaraz izatea eta bera iragartzeko erabiliko diren irudiak, leloak bertoko ezaugarriei lotutakoak izatea
 - Hizkuntzen interprete lanak egiteko kabinak aurreikustea.

1.3.- Biztanle berriak etortzen direnean.

Neurri osagarriak/aringarriak

- Herritarren ahalduntze linguistikoa eta formazioa lantzea.
- Etorri berrientzako harrera plan linguistikoa sortu. Erroldatzen direnerako euskarria sortu. Harrera egin etorri berriei, ongi etorria emateko ekitaldia egin. Eta udaleko lan ildoetan sartzeko aukera eskaini.
- Doako euskalduntzea bermatzea. Etorri berrien euskalduntzea eta beharrezko errefortzua bermatzea. Berbalagun edo mintzalagun gisakoak antolatzea. Sentsibilizazio / motibazio kanpainak. Itzulpen zerbitzuak eskaintzea.

- Herriko merkataritzara begira gomendioak eta sariketa sistema bideratu hizkuntza ohiturak jakin batzuk sustatzeko.
- Udalak sustatutako etxebizitzetan hizkuntza paisaiaren inguruko irizpideak mantentzea bideratu. Sustapen pribatuko etxebizitzetara hizkuntza paisaiaren gomendio irizpideak helaraztea.
- Jabekide-erkidegoen funtzionamendua euskaraz izatea lagundu eta bultzatzea.
- Herriko elkarte eta eragile ezberdinetan hizkuntza irizpideak proposatzea.
- Orain arteko ezarri diren irizpideei eta Euskara Sailak ezarritako bideari eutsi; tarteka garapen eta egoera berriei egokituta irizpideak eguneratu.

2.- Jarduera sozioekonomikoari lotutako neurriak.

2.1.- Planifikazio garaian.

Izaera/dimentsio/lekukotzeari lotutakoak

- Planaren irizpideen artean jarduera eta enplegu anitz eta tokiko beharretara neurritutakoak sortzeko aukerak sustatzea jasotzea, antolaketa erabakietan tokiko merkataritza eta jardueren aldeko hautu baten bidez.

2.2.- Enpresei lotutako bisitariak etorriko direnean.

Neurri osagarri/aringarriak

- Enpresetan euskara planak garatzea sustatzea (kontutan hartzeko udalaren hizkuntza politikan).
- Udalarekiko harremanetako hizkuntza euskara izan dadin eskatzea. (kontutan hartzeko udalaren hizkuntza politikan).

2.3.- Zerbitzuei lotutako bisitariak etorriko direnean.

Neurri osagarri/aringarriak

- Zerbitzuen kudeaketa publikoa denean hizkuntza irizpideak ezartzea eta horiek betetzeko jarraipen sistema zehaztea. Hizkuntza irizpideetan jasoko dira:
 - Harrerako langileak euskaldunak direla bermatzea.
 - Hizkuntza paisaia euskaraz egongo dela bermatzea.
 - Komunikazioak euskaraz egingo direla bermatzea.
 - Zerbitzuak euskaraz eskainiko direla bermatzea.
- Zerbitzuen kudeaketa pribatua den kasuetan hizkuntza irizpideak ezartzearen garrantziaz ohartaraztea.
- Merkatarari-ostalariei bideratutako euskalduntzeko saioak eskaintzea. Itzulpen zerbitzuak eskaintzea. Sustatzaileei errotulazioa euskaraz jartzeko baliabideak eskaini, dirulaguntzak eman eta salbuespen fiskalak eskaini.
- Udaleko Euskera Sailak euskararen inguruko aholkularitza eta laguntza teknikoa eman, eta jardueraren funtzionamendurako beharrezkoak diren baliabideak eskaini (kartelak, prezio zerrendak...).
- Merkatarien edo enpresarien ahalduntze linguistikoa eta formazioa landu.
- Esparru publikoak erabiltzeko baimenak ematen direnean, hizkuntza irizpideak ezarri.

3.- Jarduera soziokulturalari lotutako neurriak (kultura, turismoa).

3.1.- Planifikazio garaian.

Izaera/dimentsio eta lekukotzeari lotutakoak

- Erabiliko diren irudi leloak bertako ezaugarriei lotutakoak izatea.
- Garrantzi naturala, historikoa edota kulturala duten lekuak babestea edo hobetzea.
- Bisitari kopuru jasangarria sustatzea.
- Ondarearen baitan, euskara ere babestu beharreko ondare gisa hartzea.

3.2.- Turismoari lotutako bisitariak etorriko direnean.

Neurri osagarriak/aringarriak (Turismo Planean kontutan hartzeko)

- Ostalaritzan lan egingo duten langileak trebatzeko saioak eskaintzea. Euskaraz komunikatzeko oinarrizko trebakuntza: agurrak, esamoldeak, janarien izenak.
- Turismo sektoreko langileak ahalduntzea zerbitzua euskaraz emateak duen garrantziaren eta balioaren gainean.
- Ostalariei web atariak, menuak eta bestelako euskarriak euskaratzeko aholkua eta laguntza eskaintzea.
- Turista gehien dagoen egunetan, herrian egiten den euskarazko kultur sorkuntzari ikusgarritasuna ematea.
- Bigarren etxebizitza gisa erabiltzen diren etxeetako turista egoiliarren hizkuntza portaerak aztertzea eta zaintzea.
- Turismo jardueretarako hizkuntza irizpideak lantzea, komunikatzea eta aplikatzea.
- Turistei liburuxkak banatu euskarazko agurrekin, esaldiekin, bitxikeriekin...
- Ostalaritzako langileei zuzendutako euskarri bat sortzea oinarrizko trebakuntzarekin.
- Turismo bulegoan galdetegi bat landu, zenbateko balioa ematen dioten kulturari, hizkuntza propioa izateari.
- Ahalduntze eskolak, hizkuntza portaeren inguruko saioak egitea herritarrekin.
- Turismo ekimenetan euskara berezitasun / erakargarri modura lantzea.

4. Oro har kontutan izatekoak (politika orokor bezala).

- Eraikinen bati edo espazio publikoren bati izena ipini behar izanez gero, euskarazko izena jarri eta toponimia kontuan hartu.
- Komunikazio irizpideak finkatu eta euskarari lehentasuna eman komunikazioa egingo den elementu eta ekintza guztietan.
- Alde Zaharraren irudia berreskuratzeko kanpainak, esloganak euskaraz egitea edota euskaraz sortuta egitea.
- Herritarren parte-hartze prozesuetan euskara erabili eta baliabideak ezarri euskara ez dakiten edo euskara ulertzen ez duten herritarrentzat.
- Babes arkitektonikoa eta arkeologia babesaren duten ondasunen eraberritze, handitze, eraiste, kontserbazio lanetan hizkuntza irizpideak ezarri.
- Saneamendu, hornidura, argindar sarea, telekomunikazio sarea, gas sarea.. egiteko obrei hizkuntza irizpideak ezarri (karteleria, errotulazioa...).

- Hiri hondakin solidoen kontainerrak euskaraz errotulatzeko irizpideak ezarri.
- Sustatzaile pribatuek edo jabe elkarrekin egingo dituzten obretan, obrak iraungo duten bitartean, hizkuntza paisaia gutxienez euskaraz izateko irizpidea ezarri eta barruko elementuen hizkuntza (igogailua, buzoiak...) euskara izan dadila proposatu edo aholkatu.